

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1062/2023 FORU AGINDUA, maiatzaren 29koa, 2023ko Lauaxeta Sarietarako deialdia egiten duena.**

**ZIOEN AZALPENA**

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren bitartez, honako helburu hauek dauzka, besteak beste: euskararen erabilera, bereziki, bizkaierarena sustatu, zabaldu eta normalizatzea.

Euskara gizarte-eremu guztietara zabaltzeko ahaleginean, ezinbestekotzat jotzen da gizartean bertan eragitea, gizartea baita euskara garatu behar den espazio naturala.

Helburu hori kontuan izanda, egokitzen jo zen «Lauaxeta Saria» sortzea ohorezko sari gisa. Saria, hain zuzen, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaian euskararen sustapen, zabaldu eta normalizazioaren aldeko ahaleginetan nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoei edo irabazi-asmorik gabeko kolektibo eta taldeei eskerrak emateko modu bat zen, bai eta egindako lana jendaurrean aintzatesteko modu bat ere.

2012. urtean Lauaxetaren fusilamenduaren 75. urteurrena betetzen zela-eta, aintzatespen hori zabaldu egin zen poesiararen eta memoria historikoari buruzko ikus-entzunezkoen arloetara, egin-eginean ere, arlo horietan aurreko urtean sortutako lanak sustatu eta saritzeko, kategoria bakoitzari dagokion diru-zuzkiduraren bidez.

2017an, halaber, beste etapa bat hasi zen «Ohorezko Lauaxeta Saria» jasotzeko bidea ireki baitzitzairen nazioarte mailan euskara sustatu eta zabaldu eta euskararen izen ona ezagutzera eman zuten bizkaitarrei edo bizkaitarren ondorengoei.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako hau

**XEDATZEN DA:****1. artikulua. — Xedea**

Foru-agindu honen helburua 2023ko Lauaxeta Sarietarako deialdi publikoa onartzea da. Deialdiak bi adar dauzka: alde batetik, Bizkaian bereziki eta munduan zehar, oro har, euskararen sustapen, zabalkunde eta normalizazioan egindako ekarpenagatik nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoak edo irabazi-asmorik gabeko kolektibo edo taldeak publikoki saritzea eta merezimenduzko jarduera horiek plazaratu eta zabaltzea, gizarte osoa zeregin horretara erakartzeko pizgarri gerta daitezten; eta, bestetik, poesiararen eta ikus-entzunezkoen arloetan sorturiko euskarazko lanak zabaltzea, ondoren adierazten diren modalitateen bidez:

- «2023ko Ohorezko Lauaxeta Saria», Bizkaian, bereziki, eta munduan zehar, orokorki, euskararen sustapen, zabalkunde eta normalizazioan pertsona fisiko edo juridiko batek edo batzuek edo irabazi-asmorik gabeko kolektibo edo talde batek edo batzuek izan duen/duten ibilbidea saritzen duena.
- «2023ko Lauaxeta Poesia Saria», euskaraz bertsoetan edo poesia-prosan sortutako poesia saritzen duena bi mailatan: 1) delako lana argitaratu denean 35 urte edo gehiago duten idazleei dagokiena eta 2) 35 urtetik beherakoena. Egin-eginean ere, lanen bikaintasunez gain, idazle gazteen artean poesiagintza suspertzeko eta zabaltzeko asmoz mailakatu eta banatu da sari hau.



- c) «2023ko Lauaxeta Ikus-entzunezkoen Saria», memoria historikoari buruz euskaraz sortutako dokumental formatuko ikus-entzunezko lanak saritzen dituen, hain zuzen, Euskal Herriaren bilakaera historikoan arrastoa utzi duten gertakari, talde edo pertsonetan oinarritzen diren lanak.

**2. artikulua. — Onuradunak**

1. Foru-agindu honetako 1. artikuluko a) modalitatean, pertsona fisiko edo juridikoak edo irabazi-asmorik gabeko kolektibo edo taldeak aurkeztu ahal izango dira. Hautagaiak norbanakoak badira, edozein pertsona fisikok edo juridikok proposatu ahal izango ditu sarirako, baina ezingo dute beren burua proposatu. Horrez gainera, epaimahaiak berak proposatu ahal izango ditu hautagaiak, bere eginkizunak erabilita, foru-agindu honetako 4.1 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera.

2. Foru-agindu honetako 1. artikuluko b) eta c) modalitateetan, onuradunak 18 urtetik gorako norbanakoak izango dira —egileak b) modalitatean, eta zuzendariak c) modalitatean—, deialdirako izendatutako epaimahaiak adierazitako irizpidearekin bat auke-  
ratuak.

3. Zendutako egileei ere eman ahal zaizkie «2023ko Lauaxeta Sariak».

4. 2023ko Lauaxeta Sarietan parte hartzeak foru-agindu honetan ezarritako xedapen guztiak onartzea dakar.

**3. artikulua. — Proposamenak eta epeak**

1. Foru-agindu honen 1. artikuluko a) modalitatearen kasuan, saria ohorezkoa izanda, 2.1 artikuluko baldintzez gainera eta epaimahaiak sariak emateko kontuan hartzen dituen inguruabarrez gainera, ez da beharrezkotzat jotzen hautagaiak bestelako baldintza berezirik bete behar izatea. Goiko 2.1 artikuluko horren arabera hautagai-proposamenak egin ahal izango dira; Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Recalde zumarkaleko 30. zenbakiko 6. solairuan (48009 Bilbo) duen bulegoan aurkeztuko dira hautagaitzak, baina betiere Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari zuzenduta. Proposamenekin batera, saria jasotzeko merezimenduak egoki egiaztatzen dituen dokumentazio guztia aurkeztu behar da. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikulua zehazten duen bidea erabiliz ere bidali ahal izango dira hautagaitzak. Hautagaitzak aurkezteko epea foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2023ko uztailaren 21ean amaituko da; egun horiek biak barne.

2. Foru-agindu honen 1. artikuluko b) eta c) modalitateen kasuan, ezin izango da hautagaitzarik bidali. Ildo horretatik, epaimahaiak ezarriko du, berezkoak dituen ahalmenen arabera, zeinek har dezaketen parte foru-agindu honen 4. eta 6. artikuluen arabera.

Edozelan ere, 2023ko Lauaxeta Sarietara 1. artikuluko b) eta c) modalitateetan aurkeztuko diren lanek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) «2023ko Lauaxeta Poesia Saria», euskaraz bertsoan edo poesia-prosan sortutako poesia saritzen duena:

Bi maila ezartzen dira:

- 1) 35 urte edo gehiago duten idazleen lanari dagokiona, eta
- 2) 35 urtetik beherako idazleen lana saritzekoa.

Biotan, dena dela, ezinbestekoa izango da honako baldintzok betetzea:

- Argitaratzeko orduan bizirik zeuden egileek poesiaren arloan euskaraz sortutako lanak, haien ediziorako legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenak.
- Lan horiek lehen aldiz 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era artean argitaratuak izan behar dira. Aleak lege-gordailuan behin betiko gordailutu eta ematen diren eguna izango da argitalpen-eguna.
- Sariketara aurkeztuko d(ir)en lanaren egilea(k) pertsona fisiko(a) izan behar d(ir)a.



- b) «2023ko Lauaxeta Ikus-entzunezkoen Saria», memoria historikoari buruz euskaraz sortutako dokumental formatuko ikus-entzunezkoak saritzen ditue-na, hau da, Euskal Herriaren bilakaera historikoan arrastoa utzi duten gerta-kari, talde edo pertsonetan oinarritzen diren lanak:
- Memoria historikoari buruz egiten diren euskarazko dokumental formatuko ikus-entzunezko lanak. Lan horiek 2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era artean ekoitziak izan behar dira. Kopiak lege-gordailuan behin beti-ko gordailutu eta gordailu horri ematen zaizkion eguna izango da ekoizpen-eguna.
  - Saria ikus-entzunezko lanaren zuzendariari emango zaio, eta edozein herritar-tasunetako hautagaiak aurkeztu ahal izango dira.

#### **4. artikulua. — Ebaluazio-irizpideak.**

1. Foru-agindu honen 1. artikuluko a) modalitatean, deialdi honetarako izendatu-tako epaimahaiak epearen barruan aurkeztzen diren proposamenak ebaluatuko ditu, eta aurkeztu diren pertsonen ibilbidea kontuan hartuta erabakiko du saria zein hautagairi eman.

«2023ko Ohorezko Lauaxeta Saria» irabazteko merezimenduak dituzten pertsonak edo erakundeak deialditik kanpo ez geratzeko, epaimahaiak proposatu ahal izango du saria ematea bere ustez sari hori merezi duen pertsona edo erakunde bati, aurretik hau-tagaitzarik aurkeztu ez bada ere.

2. Foru-agindu honen 1. artikuluko b) eta c) modalitateetan, epaimahaiak, hasiera batean, 2023ko Lauaxeta Sarietarako ezarritako helburuak betetzen dituzten lanak au-keratuko ditu. Epaimahaiak, aukeratutako lanen kalitatea eta sormena aintzat hartuta, merezi duen hautagaitzari emango dio saria. Hala eta guztiz ere, ez da sarituko aurreko deialdian saridun gertatutako egileen lanik.

3. Epaimahaiak saria ez ematea erabaki dezake, edozein modatatetetan ere.

#### **5. artikulua. — Aholkularitza**

Foru-agindu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beha-rrezkoa den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko du Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak, hurrengo estekaren bitartez: [www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara](http://www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara)

#### **6. artikulua. — Epaimahaia.**

1. Literaturaren, ikus-entzunezkoen eta kulturaren munduko pertsona famatuek osatutako epaimahaia. Epaimahaiak, aurkeztutako lanak eta hautagaien ibilbidea azter-tu eta ebaluatu ondoren, irabazleen proposamena egingo du. Honela osatuko da epai-mahaia, 2023ko Lauaxeta Sarien modalitate bakoitzerako:

- a) «2023ko Ohorezko Lauaxeta Saria», Bizkaian, bereziki, eta munduan zehar, oro-korki, euskararen sustapen, zabalkunde eta normalizazioan pertsona edo era-kunde batek edo batzuek izan duten ibilbidea saritzen duena.

Epaimahaiko burua:

- Bizkaiko Ahdun Nagusia.

Epaimahaiko kideak:

- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.
- Labayru Fundazioko zuzendaria.
- Euskara zuzendari nagusia.

Idazkaria:

- Hizkuntz Normalizazio Ataleko Hizkuntz Normalizazioko goi mailako teknikari bat.

Ordezko idazkaria:

- Eskuordetze bidez, Euskara Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.



Idazkariak eta haren ordezkioak hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

- b) «2023ko Lauaxeta Poesia Saria», euskaraz bertsoan edo poesia-prosan sortutako poesia saritzen duena.

Epaimahaiko burua:

- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.

Ordezko epaimahaiburua:

- Euskara zuzendari nagusia.

Epaimahaiko kideak:

- Jon Kortazar Uriarte, literatura-kritikaria eta UPV/EHUko literatura-katedraduna.
- Amaia Jauregizar Ormaetxea, Euskal Ikasketetan doktorea.

Ordezko epaimahaikideak:

- Itziar Osa Iraolagoitia, Euskal Editore Elkartearen ordezkari.
- Juan Ramon Madariaga Abaitua, Euskal Idazleen Elkartearen (EIE) ordezkari.

Idazkaria:

- Euskara Zerbitzuko burua.

Ordezko idazkaria:

- Eskuordetze bidez, Euskara Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.

Idazkariak eta haren ordezkioak hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

- c) «2023ko Lauaxeta Ikus-entzunezkoen Saria», memoria historikoari buruz euskaraz sortutako dokumental formatuko ikus-entzunezko lanak saritzen dituena.

Epaimahaiko burua:

- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua.

Ordezko epaimahaiburua:

- Euskara zuzendari nagusia.

Batzordeko kideak:

- Itziar Mena Sardonis, Euskara Bizia Batzordeko kidea eta ikus-entzunezkoetan aditua.
- Vanesa Fernandez Guerra, Zinebiko zuzendaria.

Ordezko epaimahaikideak:

- Amaia Merino Unzueta, 2020ko Lauaxeta Sariaren irabazlea.
- Asier Gerricaechebarria Lopez, Euskal Gidoigileen Elkartearen ordezkari.

Idazkaria:

- Euskara Zerbitzuko burua.

Ordezko idazkaria:

- Eskuordetze bidez, Euskara Zerbitzuari atxikitako pertsona bat atxikitako pertsona bat.

Idazkariak eta haren ordezkioak hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

2. Epaimahaiak kideen gehiengoz erabakiko du «2023ko Lauaxeta Sariak» nori eman modalitate bakoitzean. Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du erabakitzeke. Epaimahaiak beharrezkotzat jotzen badu, egoki deritzen pertsoneri deitu ahal izango die, informazio osagarria lortzeko.

**7. artikulua. — Ebazpena**

Sariak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak emango ditu, foru-agindu bidez, epaimahaiaren ebazpen-proposamena aintzat hartuta. Hiru (3) hilabeteko epea izango du horretarako, «2023ko Ohorezko Lauaxeta Sari»rako proposamenak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Deialdi honi dagokionez interesdunak diren pertsona eta erakunde jakinarazi egingo zaie deialdia ebazteko ematen den foru-agindua.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez argitaratuko da saridunen zerrenda.

**8. artikulua. — Sariak**

Irabazleei (lanei edo pertsoneri) honako sari hauek emango zaizkie:

- a) «2023ko Ohorezko Lauaxeta Saria», Bizkaian, bereziki, eta munduan zehar, orokorki, euskararen sustapen, zabalkude eta normalizazioan pertsona edo erakunde batek edo batzuek izan duten ibilbidea saritzen duena: saria guztiz ohorezkoa da, eta ez du inolako eskubide administratibo edo ekonomikorik sortzen; baina protokolo izaerako ordezkaritza-eginkizunetarako (horretarako bakarrik) ahalmena eman diezaiolke onuradunari.
- b) «2023ko Lauaxeta Poesia Saria», euskaraz bertsoan edo poesia-prosan sortutako poesia saritzen duena. Bi maila ezarri dira: 1) 35 urte edo gehiago duten idazleen lanari dagokiona, eta 2) 35 urtetik beherako idazleen lana saritzekoa: sari ekonomikoa eta diploma.
- c) «2023ko Lauaxeta Ikus-entzunezkoen Saria», memoria historikoari buruz euskaraz sortutako dokumental formatuko ikus-entzunezkoak saritzen dituen: sari ekonomikoa eta diploma.

Aurreko b) eta c) letretan agertzen diren sari ekonomikoei atxikipen fiskalak egingo zaizkie, legeak ezartzen duenarekin bat. Sariok aparteko diru-laguntza zuzen baten bidez ordainduko dira; 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluan arautzen da diru-laguntza mota hori (foru-arau horren bidez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen da).

**9. artikulua. — Betebeharrak**

Saridunek eurek joan behar dute sariak banatzeko ekitaldira, horretarako adierazten zaien toki, egun eta orduan, eta, joan ezin badira, ordezkari bat bidali beharko dute. Ekitaldi horri behar duen publizitatea emango zaio, eta foru-agindu honen 1. artikuluan adierazitako helburuekin bat datorren seriotasunarekin garatuko da.

**10. artikulua. — Araubide juridikoa**

Foru-agindu honetan aurrez ikusita ez dauden kasuetan honako hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen arau-emaile.

Foru-agindu honetan aurrez ikusita ez dauden kasuetan honako hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta bere izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen arau-emaile.

**11. artikulua. — Datu pertsonalen babesa**

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko, datuak helburu bakarrarekin tratatuko dira: espediente hau eta beronekin zerikusia duen beste edozein espediente kudeatzea. Tratamenduaren arduraduna Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusia izango da.



Interesdunak bere datuak eskuratu ahal izango ditu, zuzentzeko edo ezabatzeko eskatu, datuen tratamendua mugatzeko eskatu, eta tratamenduaren aurka agertu, baina aurretik bere identitatea egiaztatu beharko du Laguntzan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Liburutegiko kristalezko eraikina): Erregistroa eta Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Atala – Diputazio kalea 7, Bilbo 48009–, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4. artikuluan ezarritako edozein bide erabilita, «Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera» zuzenduta.

Interesdunak eskubidea du, halaber, kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa jartzeko, alegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean.

Era berean, aukera izango du Bizkaiko Foru Aldundiko datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, idazki bat bidalita Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko buruari (Kale Nagusia, 2, 6.a, 48001-Bilbo).

## AZKEN XEDAPENAK.

### **Lehenengoa.—*Foru-agindua zabaltzea***

Euskara Zerbitzuak dagozkion jarduerak burutuko ditu foru-agindu honetan xedatutakoa zabaltzeko euskararen sustapen, zabalkunde eta normalizazioari lotutako pertsona eta erakundeen artean, hautagaitzak aurkezteko.

### **Bigarrena.—*Indarrean jartzea***

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 29an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA